

BIRJINIA-REN AURKEZPENA

Jose Antono Mujika

Gaur aurkezten dugun liburua –*Birjina, edo doncail christaba*–, XVIII. mendeko eskuizkribu baten transkripzioa da. Eskuizkribu luzea da, larru-azaleko lau liburukitan aski txukun emana, pasarte ilun batzuk gorabehera.

Arrakasta handia izan zuen liburu frantses baten itzulpena da. *Virginie ou la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modele aux filles qui aspirent à la perfection* du izena liburu horrek: 1752an argitaratu zen eta ondoko urteetan edizio asko izan zituen. ‘Irakurgai espirtual’ gisako liburua da, Michel-Ange Marin izeneko fraideak idatzia. Horren antzeko beste liburu batzuk ere idatzi zituen fraide horrek: *La Farfalla ou la comédienne convertie* (1762), *Adelaide De Witsbury Ou La Pieuse Pensionnaire* (1763), *Angélique ou la religieuse selon le cœur de Dieu* (1766), *La Marquise de los valientes, ou la dame chrétienne. Histoire castillane* (1767); aipagarria da batez ere bederatzi liburukitan argitaraturiko *Les Vies des Pères des déserts d’Orient* (1764).

Virginie, esan bezala, ‘irakurgai espirtual’ izateko asmatutako kontakizuna da. Siziliako andre baten bizitza kontatzen du, zeina santuki bizi izan baitzen eta neskaxa edo andre gazteentzat eredu egokia izan daitekeen. Kontakizuna da, bai, Birjiniaren bizitzako gorabehera nagusiak kontatzen dituen, baina egileak ez du aukera galtzen hitzaldi luzeak tartekatze behin eta berriro, gertakarien artean, meditazio gisako gogoetaz eta aholkuek beteak.

&&

Liburu frantses horren itzulpena da, bada, gaur aurkezten dugun eskuizkribua.

Gogora datorren lehen galdera hau da: norentzat egin zuen itzultzaileak itzulpen hori?, zein irakurle zituen gogoan horrelako lan luze eta neketsua hartu zuenean? *Aintcineco solasa*-n esaten denez, andre gazteak ziren liburuaren xedea. Itzulpenarena, hortaz, andre gazte euskaldunak izango ziren. Hori behintzat esan daiteke. Baina zein andre, zehatz esanik?

Eskuizkribuak ematen digu galdera horri erantzuteko bidea: lau liburukietako lehen orrialdean izen bat ageri da orriaren behe aldean, beste esku batek idatzia: *Ieanne Marie Robin*. Liburukien jabearen edo erabiltzailearen izena izango da hori, seguruenik. Eta jakin badakigu Ieanne Marie Robin donibandarra Hazparneko kolegioan zegoela serora, itzulpena egin zen urteetan. Uste izatekoa da, hortaz, batez ere kolegio hartan erabili zutela eskuizkribua.

Horrek argitzen du, bestalde, eskuizkribuaren ezaugarri nagusia. Kolegio hartako serorak eta han zeuden gainerako andre gazteak ikasiak izango ziren, hau da, irakurtzen ohituak, neurri batean behintzat, eta horrexegatik hartuko zuen itzultzaileak haien neurriko euskara jaso erabiltzeko erabakia. Hain zuzen ere, euskara eredu zaindua, jaso eta ‘goi mailakoa’ eskaini zien. Horrek bereizten du eskuizkribua.

&&

Darabilen lexiko berezian datza batez ere eredu jaso hori. Hitz berri eta ezezagun asko erabili zituen itzultzaileak frantseseko terminoak ordaintzeko. Titulua bera da horren adierazgarri:

Birjinia, edo doncail christaba. Lempizte siziliarra, prestutasun osorat heldu nahi diren nescatchei moldetzat balia dakientzat, Aita Begirungarri Migel-Aingeru Marin,

Chumen chumenen Donepilacoac egina. Eliza gizon batec berriro escuararat itzulia.

Horra, bada, izenburuan berean, *lempizte* –‘histoire’–, *begirungarri* –‘vénérable’– eta *donepila* –‘ordre’– hitz berriak. Eta tituluan ez ezik testu osoan zehar ere aurkitzen ditugu ugari eta oparo horrelako hitzak. Horixe da, hain zuzen, eskuizkribuaz mintzatu diren euskalariek beti azpimarratu dutena.

Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-tik hartu zituen hitz berri asko –eta Iparraldeko idazle batek hori egitea esanguratsua da, dudarik gabe–, baina berak ere bazekien horrelakoak asmatzen. Adibide bat bakarra aipatuko dut hemen, behar baino gehiago ez luzatzearren. Hona, esate baterako, -*gune* atzizkiarekin eraturiko izenen kopuru handia:

. *aldaragune*, ‘retraite’; *aphalesgune*, ‘humilité’; *asmagune*, ‘pensée’; *bathgune*, ‘rencontre’; *behargune*, ‘peine’; *beheragune*, ‘bassesse’; *desaraugune*, ‘ce qui est déréglé’; *ekhargune*, ‘inclination’; *gisagune*, ‘qualité’; *gojhesgune*, ‘adoration’; *guphidesgune*, ‘ménagement’; *lothgune*, ‘affection’; *maithagune*, ‘amour’; *oneresgune*, ‘bénédiction’; *onhesgune*, ‘charité’; *osogune*, ‘perfection’; *prestugune*, ‘vertu’; *sinhesgune*, ‘foi’.

&&

Adibide horietan ikus daiteke nolako euskara eredua eskaini zuen *Birjinia*-ren itzultzaileak. Ulertuko ote zuten, ordea, haren irakurleek? Nekez, nik uste. Hain zuzen ere, orrialdeen alboan hitz ezezagunen sinonimoak ipintzera behartua aurkitu zen. Lehen liburukiko lehen kapituluan baizik ez zuen egin hori, ordea, eta baita kontu askotan besteak ez bezalakoa den laugarren liburukian ere. Honen

eruditik aurrera, gainera, albo-oharretan ez baina testuan berean sartu zituen hitz ezezagunen sinonimoak, *edo* juntagailuaz lotuta: *prestugune edo berthute, desaraugune edo deserregelamendu...*

Ez dakigu zenbateraino erabiliko zuten *Ieanne Marie Robin* serorak eta Hazparneko kolegioko beste andre gazteek eskuizkribu hau, baina uste izatekoa da ez zitzaiela ulerterraz gertatuko.

Denbora gehiegi ere ez zuten izan harekin trebatzeko. Itzulpena 1782 eta 1784 urteetan egin zen, eta handik urte gutxira iraultza etorri zen. Eta iraultzarekin, jakina denez, serorak kolegioa utzi eta sakabanatu egin ziren. Robin andreak berekin eramango zituen lau liburukiak. Badakigu gero apaiz baten esku egon zirela, eta Harrietek bederen erabili zituela bere hiztegia egiteko. Larresoroko, Belokeko eta Uztaritzeko seminarioetan egon ziren gero, eta azkenik Piarres Andiazabal kalonjearen eskuetara iritsi ziren. Jaun honi eskerrak egin ahal izan dut gaur aurkezten dudan transkripzioa.

Eskuizkribuaren pasarte ilunak argitzeko ez ezik hitz berri ugarien esanahi zehatza ezagutzeko ere laguntza handia eskaini dit, bestalde, jatorrizko frantsesak. Zorteko izan naiz, horretan: Oñatiko ‘Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa’-n bada haren ale bat, eta hura erabiltzeko modua izan dut.

&&

Euskara jasoaren saio hori aztertzeko aukera eman nahi diegu euskalariei transkripzio honekin. Horretarako *Hiztegia* erantsi dugu liburuaren azkenean. Hitz bereziak biltzen dira hiztegi horretan: frantseseko zein hitz ordaintzen duten adierazten da, eta agerpenen erreferentziak ematen.

Horretaz gain, jatorrizko liburu frantsesaren kopia erantsi dugu liburuaren azkenean, CD formatuan, itzulpenaren

gorabeherak aztertu nahi duenak horretarako aukera izan dezan.

&&

Gauza gehiago ere balegoke, noski, liburu honetaz esateko, baina honetan utziko dut gaurko aurkezpen laburra. Amaitzeko, ordea, eskerrak eman nahi dizkiet liburuaren argitaratzea posible egin dutenei:

. Piarres Andiazabal jaunari, eskuizkribuaren kopia utzi zidalako.

. Ramón Martín Suquia Oñatiko ‘Gipuzkoako Protokolen Artxibo Historikoa’-ko agirizainari, jatorrizko liburu frantsesaren kopia bidali zidalako.

. Artxibo horretako arduradunei, liburu frantsesaren CD-a argitaratzeko baimena eta erraztasun guztiak eman dizkigutelako.

. *Euskararen Erakunde Publikoa*-ri, liburua argitaratzeko behar ziren diru-kontuak bideratu dituelako.

. Euskaltzaindiari, eta batez ere Euskaltzainburu Andres Urrutia jaunari, erakutsi duen arretagatik eta liburua den bezala argitaratzeko hartu duen lan guztiagatik.

Eskerrik asko denei!